BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1287

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 5ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, zeinen bidez onartzen baita Onintza Larrinaga Gandiaga lankide boluntarioari beka emateko Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional erakundeari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera. Laguntzak Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeei eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoei eman zaizkie 2011. urteko deialdiaren barruan, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariaren 2011ko irailaren 27ko Ebazpenaren babespean, Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional erakundeari 16.165,54 euroko diru-laguntza eman zitzaion, Onintza Larrinaga Gandiaga lankide boluntarioari beka emateko (NBE-2011BA/0001).

Erakunde horrek, 2012ko urriaren 16an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari bekari partzialki uko-egiteko eskaera bidali zion, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuak (erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak ematekoak diren laguntzak), 9. artikuluan, ezartzen du lankide boluntarioak bekari uko egiteak kobratutako eskubide ekonomikoen itzulketa proportzionala ekarriko duela eta, hala behar izanez gero, ordaindu gabekoak ez direla ordainduko

Kasu honetan, itzuli beharreko kopurua 6.286,22 eurokoa da.

Proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onintza Larrinaga Gandiaga lankide boluntarioari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzea, Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2011. urterako laguntzak emateko deialdiaren barruan. Erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak ematen dizkieta.

Horren ondorioz, Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional Erakundeak dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 6.286,22 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 5a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.